



Barroeta dorrea (Markina - Xemein)

Markina-Xemeinetik abiatu eta kostaldera bideratzen garenean, jada urrutitik, haren soslaia ikusten dugu, garbi-garbi. Erronkari, dorrearen molea magal erdira altxatzen da, Artibaiko bailararen ekialdean. Batek esango luke begira daukagula, zeharka-edo, bere kontrolpetik ihes egiterik ez dugula ohartarazteko.

Baliteke egun hari begiratzeak eragiten duen zirrara izugarri hori erdi aroko pertsonen izpirituan eragingo zuen errespetuaren (beldurra, agian) antzekoa izatea, nolabait. Alabaina, ez dago zalantzarik egun ikusten dugun Barroeta Dorrea jatorrizkoaz oso bestelakoa dela.

XIV.etik XV.era bitartean eraikia, dorre zaharrak, hormetan grabatuta, bere historia eta han bizi izan zirenean gordetzen du. Pareta horiei adi begiratu, historia hura, azaletik bada ere, nolakoa izan zen hautemateko aukera eskaintzen digu.

Dorre zaharra eraikuntza sendo baina xumea izan zen. Eraikitze gertuko inguruetik ateratako materialak erabili ziren: egurra erdi aroko baso ugari, barruko egitura egiteko, eta harria gertuko harrobi txikiren batetik, kanpoko horma lodiak altxatzeko. Obra hauen sustatzailea, ziurrenik, Pedro Galindez de Barroeta, leinuko lehenetako bat izan zen.

Dorre jauntxoaren etxebizitza zen, gotortutako etxebizitza, kanpoko mehatxuetatik babestu behar zuelako. Jauntxo etsaiengandik defendatu behar zuen, baita XV. mende aldera, haurride eta hiribildutan batuta, ordura arte eztabaidiazina izandako botereari aurre egiten hasiak ziren nekazariengandik ere. Erdi Aro berantiarreko Bizkaiko jendarte osoarengan eragina zuen gatazka testuinguru honetan erre zuten Barroeta dorrea, 1740 urtean, Ugartetarren leinu aurkariaren aldekoek.

Dorre barruko bizimodua estua zen. Helburu militarreko eraikinaren beharrezkoak bizitzeko leku nolabait latz bihurtzen zuten. Beha diezaiogun hormen lodierari, saieteren estutasunari -egun barrualdekoak baino ez dira kontserbatzen: orain ikusten diren leihoak askoz ere geroago egin ziren-. Xehetasun horiek esparru barruan zer-nolako argitasun eta aireztapen urriak zeuden adierazten digute. Aitzitik, bizigarritasunerako eragozpen horiek abantaila erabakigarri bihurtzen ziren dorrearen defentsarako: saieterek, barrutik, etsaia geziekin erraz zigor zezakeen arkularia babesten zuten; eraginkortasuna are handiagoa zen dorre buruan zegoen egurrezko egituratik (egun desagertuta dagoen eta *urkamendi* esaten ziotenetik) tiratzen zuenean.

Barroetako jauntxoak basoko egur ustiapenetik zetozkien diru baliabide ugarietatik, handik gertu zeukaten olatik, San Jokin eta Santa Ana basilizako zaindari zirenez zegozkien hamarrenetatik (baseliza, ikusten denez, dorrearen ondoan dago), baita Ondarroako portuaren eta barrualdearen arteko merkataritzaren kontrol partzialetik ere bizi ziren.

Hamarkadak igaro ahala, bitarteko horietatik etorrira pilatutako aberastasunak, eta leinuen arteko ezkontzen politikak ondare higiezin garrantzitsua pilatzea ekarri zuen. Joera horren adibide bat XVI. mendearen amaieran aurkitzen dugu, Martin Ruiz de Barroeta y Gamboa jauna, bigarrenez, Ybarra dorreko andre Elvira Ruiz de Ybarrarekin ezkondu zenean.

Ordurako jada Bizkaiko Jaurerrian Erdi Aroan izandako borroka odoltsuak itzaliak zirenez, dorreak defentsarako erabilgarritasuna galdu zuen eta, horregatik, aldarazi behar izan zuten. Une horretan desagertu zen urkamendia, eta eraikineko hormetan lehenengo leiho handiak ireki ziren, barrua eroso eta bizigarriago jartzeko asmoz.

Jauregi itxura handiagoko egoitza bihurtu zen, Barroetatarren leinuaren bizitzak hartzen zituen bide berrien ildotik, bi edo hiru mendetan gerrari izatetik politikari izatera igaro baitziren. XVIII. mendearen amaieran, Ignacio de Barroeta y Munibe Calatrabako Ordenako zaldun, Markinako alkate eta Bizkaiko jaurerriko ahaldun nagusia zen.

Dorre honen historiaren epilogoia XVIII. eta XIX. mendeen artean zehaztugabeko une batean gertatu zen, dorreko egoiliar nobleek nekazarien eskuetan lagatzea erabaki zutenean, beren jabetzako beste egoitza batzuetara joateko. Biztanle berriek nekazaritza eta abeltzaintza ustiatzeko moldatu zuten, eta egun ikusten dugun baserria egokitu zuten. Horrela, eraikina lozorro moduko batean sartu zen, XX. mendean birmoldaketa batek soilik aldatu zuena, eta hegoaldeko horma goitik behera zeharkatzen duen arraildura handiaren aztarna utzi zuena.

Testua: Ismael García Gómez.



Barroeta dorrea

Markina-Xemein. (*Arretxinaga auzunea*).

Nola heldu:

Dorrera Arretxinagako San Migel basilizaren atzealdetik irteten den bidetik heltzen da. Bi elementuen seinaleak daude Markina zeharkatzen duen errepide nagusian.

Bisiten ordutegia:

Barrua ikusterik ez dago.

Inguruko beste leku interesgarri batzuk:

(*Markina-Xemein*)

- Jasokunde Andre Mariren eliza.
- Arretxinagako San Migel basiliza.
- Xemeingo udaletxe zaharra.
- Barinagako Santa Marina basiliza.
- "La Esperanza" fabrika.
- Hilerria.
- Antxia dorrea.
- Ziortzako monasterioa.